ZARAUZKO UDALA

ZARAUZKO MUSIKA ESKOLAREN KUDEAKETA KONTRATATZEKO BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA

1.- XEDEA.-

Kontratu honen xedea da Zarauzko Imanol Urbieta Musika Eskola kudeatzea.

Hezkuntza-proiektua urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan oinarrituko da. Dekretu horrek Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntza arautu gabeko berariazko ikastegien eta musika-eskolen sorrera eta funtzionamendurako oinarrizko arauak ezartzen ditu. Irakaskuntza horien ondorioz ez dira lortzen balio akademikoa duten tituluak, eta helburua musika egitea da, besterik gabe, kultura eta arte adierazpen gisa.

Zerbitzua Udalaren jabetza duen Musika Eskolaren lokaletan emango da, Villa Inmaculada eraikinean.

2.- ZERBITZUAREN HELBURUAK

Kontratuaren helburuak musika-irakaskuntza espezifikoa eta kalitatezkoa eskaintzea da, arautu gabeko musika-irakaskuntzaren bidez, eta, are zehatzago:

a) Gizartean dagoen musika praktikoaren eskaera handia asetzea; izan ere, musikaren maitaleak errealizazio pertsonal handiagoa bilatzen du, haren ondare kulturala eta adierazpen ondarea zabaltzea, bere buruarekin eta bere inguruarekin harmonia handiagoa izateko.

b) Arautu gabeko eta funtsean praktikoa den musika irakaskuntza eskaintzea, taldekako musika egiteko helburu nagusiarekin.

   Horretarako eskainiko dituen ikasgaiak:

   - Oinarrizko musika ikastaroak eta 1992ko apirilaren 2ko 389/1992 Errege Dekretuaren arabera (1992ko apirilak 28ko 102. BOEn argitaratua), beharrezko diren gutxieneko musika-tresnak erakustera behartuta dago.
   - Horiez gain gutxienezko musika-tresna batzuk irakastera behartuta dago: flauta, klarinetea, saxofoia, tronpeta, tronboia, tronpa, bonbardinoa, txistua, trikitixa, panderoa, pianoa, biolina, biolontxeloa eta perkusioa.
   - Eskaintzaren barne beharko dira baita: ahots teknika, kantu korala, musika lengoaia, musika eta mugimendu tailerra eta musika terapia.
   - Legez ezarritakotik eta zehazturiko gutxieneko horretatik aparte, adjudikaziodunak, Udalarekin batera, erabakiko du musika irakaskuntza eskaintzaren zabaltasuna, beti ere lehenengo puntuan zehazten den baldintza lehenetsiz, eta beraz, ikasle gutxiko baina taldeentzako beharrezkoak diren musika-tresna edo ikasgaiak bereziki indartuz.
   - Arreta bereziaz zainduko da Euskal Musika eta kulturarekin lotura zuzena duten tresnak. Nolanahi ere, ikasle bakoitzaren ezaugarrietara egokitutako irakaskuntza pedagogikoa egin beharko da.
   - Ahalik eta musika estilo aukera handiena eskainiko da: musika klasikoa, modernoa, tradiziozkoa, herrikoia, rocka, jazza, elektronikoa... Indartu egingo da musika estilo guztiak entzuteko zaletasuna eta kritikarako gaitasuna garatzea, bai ikasleengan, bai herritarrengan.

c) Horren ondorioz, ikaslearen parte-hartze aktiboa sustatu, bai banaka, bai taldean, eta eskolaren eta

hura errotuta dagoen gizartearen harremana sustatu. Zarautzen musikan aritzen diren talde eta elkarteekin jarduera eta harrobi lana eginez.

d) Musika modu orokorrean ulertzeko ezinbestekoak diren gutxieneko alderdi teorikoak ematea, eta, ikasleak berak horiek sakonago lantzeko beharra sentitzea.

e) Aipatutako zerbitzua edozein adinetako ikasleei eman ahal izatea, haurretatik hasi eta adin nagusikoetara.

f) Irakaskuntza programazioa egokitzea ikaslearen interesetara, dedikaziora eta ikaskuntza-erritmora, ulertuta ikasleak ere gutxieneko baldintza batzuk izan beharko dituela, jasotako irakaspenez ondo baliatzeko aukera izateko. Ondorioz, askatasuna eta autonomia dago eskaintza planifikatzeko, ikaslearen interesei eta gaitasunei hobeto egokitzeko.

g) Irakaskuntza-tekniken hobekuntza sustatzea, irakasleak etengabe hobetuz eta eguneratuz.

h) Gaitasunagatik eta interesagatik ikasketa arautuetara sartzeko baldintzak eta borondatea dituzten ikasleei prestakuntza sakonagoa ematea eta orientatzea. Irakaskuntza arautura bideratuko diren ikasle motibatuen eta gaituen hazitegi bat izatea Zarauzko Musika Eskola.

i) Koordinatu eta harremanak estutu Eskualde, Euskadi, zein Euskadiz kanpoko musika eskolekin, metodologiak, elkar-truke jarduerak, antolamendu zein funtzionamendu ereduak trukatzeko.

j) Herriko kultur eragile gisa, musikaren herri mailako sozializazioan eragin positiboa izatea, ez soilik ikasleen prestakuntzaren bidez, baita gizartean musika zabaltzeko ekintza zuzenen bidez ere, musika-taldeen jarduera publiko etengabearen bidez, udalerrian egiten diren kultur jardueretan parte hartuz.

k) Zehaztutako eskaintza guztia egiteko behar den aurre-matrikulazioa eta matrikulazioa kanpainaz arduratzea, Udaleko Kultura Departamenduarekin lankidetzan.

l) Urtean zehar tokiko kultur eragile gisa, herrira hainbat saio eskaini: gabonetan, Santa Zezilian, kurtso bukaeran, besteak beste.

3- HEZKUNTZA ESKAINTZA

3.1 HEZKUNTZA ESPARRU NAGUSIAK

1. maila edo harrerakoa/kontaktua: haurrentzako musikaren hastapena, 4-6 urteko haurrentzat, biak barne. Musika eta mugimendua.

Hezkuntza musikal goiztiarrak xede du haurrak garatzea adierazpen gaitasuna, gaitasun musikala eta psikomotorra. Horretarako, metodo pedagogiko espezifiko bat aplikatuko da, geroago aukera emango diona musika-tresna bat hautatzeko, norberaren lehentasunen eta gaitasun arabera. Ez da gaitasun mailarik egingo haurraren pertsonalitatearen garapen harmonikoa bultzatuko du irakaslearekin eta gainerako kideekin soinu jardueraren bitartez duen elkarrekintzaren bidez.

Norberaren kontzientzia hartuko du, bere barrenarekin eta ingurukoekin eta ingurukoarekin harmonian dagoen izaki gisa. Apurka-apurka hasiko da musika-tresna zehatz batekin harremanetan, bost edo sei urtetik aurrera.

Irakaskuntza 4 eta 6 urte arteko haurrei zuzenduta dago, eta taldeka egingo da.

EDUKIAK

Esparru horren oinarrizko edukiak honako hauek dira:

- Ahotsa garatzea ildo bikoitz batetik: hizkuntza eta kantua.
- Harremana soinu iturriekin, askotariko materialen, objektuen eta musika-tresnen bitartez.
- Iraupenari, intentsitateari, garaierari, tinbreari eta abarri lotutako parametroak ezagutzea eta adieraztea ezohiko grafiatan.
- Ohiko grafia ezagutzen hastea.
- Entzumena eta pentsamendu musikala garatzea.
- Mugimendua erabiltzea adierazpenerako bitarteko moduan, eta mugimenduarekin, ikusmenarekin eta entzumenarekin sentsibilizatzea, norberaren gorputza ezagutzeko, erritmoaren zentzua garatzeko eta harreman sozialak sustatzeko.

2. maila edo hasierakoa/hastapena: musika ikasketak 7 urtetik gorako ikasleentzat. Ikasgaiak: Hizkuntza musikala, musika-tresnen praktika eta taldeko jarduerak

Helburuak:

Ikasleak musika-tresna ulertuko du adierazpenerako beste elementu baten moduan, bere pertsonalitatea eta sentsibilitatea garatzeko elementu gisa. Alderdi teknikoa soilik bultzatuko du irakasleak, helburu instrumental hutsarekin, ikaslearen adierazkortasuna hobetzeko..

Hastapena irakasten bazaio musikarekin lehen aldiz kontaktua izan duen eskatzaile bati, alegia, 1. mailatik ez datorren bati, pedagogia haren adinari eta baldintzei moldatuko zaizkio. Kontserbatorioko oinarrizko maila gainditzeko moduko gaitasuna lortu nahi da.

Irakaskuntza 7 urtetik gorako haurrei zuzenduta egongo da.

EDUKIAK

Esparru horren oinarrizko edukiak:

- Ahozko gaitasunak, gaitasun erritmikoak, psikomotorrak, entzumenezkoak eta adierazpenezkoak garatzea, eta apurka-apurka irakurketa eta idazkera musikalaren oinarrizko ezagutza eta ezagutza aurreratua lortzea.
- Taldekideekin bizipen musikalak izatea; horrek aukera emango die musikarekin duten harreman afektiboa aberasteko kantuaren, mugimenduaren, musika-tresnaren, entzunaldien eta abarren bitartez.

Honela antolatuko da: esparru horretako irakaskuntza banaka eta taldeka egingo da, eta antolaketa hau izango du:

- Nahitaezko ikasgaia, hizkuntza musikala (4 ikasturte). Lehen ikasturtea komuna izango da ikasle guztientzat, edozein dela ere beren musika-tresnen espezialitatea.
- Nahitaezko ikasgaia, musika-tresnen praktika (4 ikasturte). Ikasgai hori modulutan antolatuko da, eta ikasturte bakoitzeko modulu bat egingo da lehen hiru ikasturteetan (lehenetik hirugarrenera) eta hiru laugarrenean (laugarrenetik seigarrenera), moduluen iraupena ikaslearen bilakaerari egokituko zaio.
- Hautazko ikasgaiak abesbatza eta taldeko jarduerak.

MUSIKA-TRESNEN ESPEZIALITATEAK; horiekin, ikasleak barruan daraman musika azalera dezake talde batean, dela ahozkoa zein musika-tresnena, beste ikasle batzuekin musika sortzeko, eta horrela bere musika ikasketak amaitzeko. Musika-tresnen espezialitatearen eskaintza honako adar hauetan multzokatuta

dago:

A) Musika instrumental sinfonikoa
• Biolina
• Biolontxeloa
• Zeharkako txirula
• Klarinetea
• Saxofoia
• Tronpeta
• Tronpa
• Tronboia
• Bonbardinoa
• Beste batzuk (289/1992 Dekretuaren Eranskinean jasotako guztiak)

C) Musika tradizionala (Euskadiko musika-tresna tradizionalak)
• Txistua
• Trikitixa
• Beste batzuk (289/1992 Dekretuaren Eranskinean jasotako guztiak)

D) Musika instrumental polifonikoa
• Pianoa
• Gitarra klasikoa
• Beste batzuk (289/1992 Dekretuaren Eranskinean jasotako guztiak)

E) Askotariko joerak (jazz, pop, rock, musika modernoa orokorrean).
• Gitarra elektrikoa
• Beste batzuk (289/1992 Dekretuaren Eranskinean jasotako guztiak)

TALDEKO JARDUERAK, honako hauen artean hautatu ahal izango du ikasleak:
- Klasikoa
- Konboa
- Txistu taldea
- Kantu korala
- Bestelako taldeak (espezialitatekoak edo Musika Eskolek baimendutakoak)

3. maila edo gotortzekoa: amateur musika ikasketak, 12 urtetik gorako ikasleentzat- Ikasgaiak: Musika-tresnen praktika eta taldeko jarduerak

Gaitasunaren muga bakarrak dira ikaslearen interesa, dedikazioa eta ahalmena. Gaitasuna orokorrean indartuko da, taldeek eskolan parte hartuz.

Musika Eskolako irakaskuntzaren helburuetako bat da ikasleak parte hartzea ahozko talde batean edo musika-tresnen talde batean. Ikaslearen motibazioa indartzeko, aukera eman behar zaio ikasitakoa lehenbailehen praktikan jartzeko, oinarri tekniko handia izan arte itxaron gabe.

12 urtetik gorako gazte eta helduei zuzendutakoa, adin-mugarik gabe.

EDUKIAK

Esparru horren oinarrizko edukiak:

- Taldeko jarduerek garrantzi handia hartzen dute Musika Eskolaren barruan, bai ahozkoek, bai musika-tresnen taldeek, klasikoek, modernoek eta tradizionalek. Horien antolaketa eta iraupena izango da ikastetxearen hezkuntza proiektuan aurreikusitakoa. Kontuan izango dira ikasleen maila

eta gaitasunak ere, baita eskolak dituen baliabideak ere.

12 urtetik gorako gazteei eta helduei zuzendua.

Honela antolatuko da: esparru horretan, irakaskuntza taldean zein banaka egingo da lehen ikasturtean. Bigarren ikasturtetik aurrera ez da ikasturte kopuru zehatzetan egituratuko, baina aurretik ezagutza musikalik ez duten ikasleek hizkuntza musikaleko ikasturte bat egin beharko dute.

Honako ikasgai hauetan egituratuta egongo da:

- Nahitaezko ikasgaia, hizkuntza musikala (ikasturte bat). Aurretik ezagutza musikalik ez duten ikasleentzat soilik.
- Hautazko ikasgaia, taldeko jarduera, abesbatza. Ikasle guztientzat.
- Hautazko ikasgaia, musika-tresnen praktika. Ikasle guztientzat.

MUSIKA-TRESNEN ESPEZIALITATEAK: 2. mailan deskribatutakoak.

TALDEKO JARDUERAK : 2. mailan deskribatutakoak.

4. maila edo lehentasunezko jarduerakoa: 12 urtetik gorako ikasleentzat. Musika-tresnen taldeko jarduerak

Ez dauka gaitasun mugarik, ikaslearen gogoa, dedikazioa eta ahalmena da muga bakarra. Gaitasuna orokorrean indartuko da, eskolako taldeetan parte-hartuz.

3.2 HEZKUNTZA ESPARRU OSAGARRIAK

Musika terapia lantegia hezkuntza behar bereziak dituzten ikasleentzat, 8 urtetik gorakoentzat, adin mugarik gabe. Banaka eta taldeka egingo da.

4- IKASKETEN ANTOLAKETA

Musika Eskolan eman beharreko ikasketak mailatan egituratuko dira, eta irakaskuntza orokorrari, taldeen irakaskuntzari eta 289/1992 Dekretuan eta dekretu horretan ezarritako baldintzetan aurreikusten direnei buruzkoak izango dira:

1. MAILA	-Musika tailerra: 4 urte, 5 urte …….. 60 minutu astean, taldean. -Musika tailerra: 6 urte…… …….. 90 minutu astean, taldean.
2. MAILA	-Musika mintzaira: 4 maila…….. 90 minutu astean, taldean. -Musika-tresnen praktika: 4 maila ……..…….30 minutu astean, bakarka. -Musika mintzaira helduen taldea……..……..120 minutu astean, taldean. -Kantu korala……45 minutu astean, taldean.
3. MAILA	-Musika-tresnen praktika: 4 maila ……..…….30 minutu astean, bakarka. -Taldeko jarduerak……..……45 minutu astean, taldean.
4. MAILA	-Taldeko jarduerak……..……45 minutu astean, taldean.
Musika terapia	-Musika terapia…….30 minutu astean, bakarka eta taldean.

Hemen aipatutako ikasgaiak hurrengo ikasturtean derrigorrez eman beharko dira, baina horiez gain hezkuntza eskaintza aldatu zein handitu liteke 289/1992 dekretuak ezartzen duenaren baitan: musika tresna, zein taldeko jarduera berriak proposatuz. Aldaketa horiek beti Kultura Departamenduari proposatu eta haren oniritziarekin eta, beharrezkoa balitz, Eusko Jaurlaritzan tramitatu beharreko baimenekin izango

da.

Horrela gaur Musika eskolak indarrean daukan eskaintza bermatzeko, ikasturtean gutxienez 5327 orduko zerbitzua eskaini beharko du esleipendunak.

5.- LOKALAREN ERABILPENA

Musika eskolaren gunea Maria Inmaculada eraikina izango da, eta bertan kokatuko dira jarduera nagusiak.

Hala ere, hainbat ikasgai lantzeko edo ikuskizunak egin ahal izateko bestelako ekipamenduak ere erabili ahal izango ditu, beti ere udalaren Kultura Departamenduarekin koordinazioan: Modelo Aretoa, Kiroldegia, Parrokia, Santa Klara edo beste.

6.- MUSIKA-TRESNAK

Musika-tresna eta bestelako hornigaiak erosketa: Baldintza Plegu honi adjudikaziodunak eskuartean darabilen musika-tresnen eta bestelako hornigaien zerrenda edo inbentarioa erantsiko dio (musika-tresnak, azpiegitura teknikoa...).

Zarauzko Udalak inbertsiotako partida sortuko du, beharrezkoa bada, musika-tresnak erosteko. Tresnen erosketa hori partida horretan sartzeko eta inbertsio kontsideratzeko justifikatu egin beharko da: ikasleek lortu ezin duten baliabidea izatea, eta musika eskolan hori egotea ezinbestekoa izatea… Horretarako ikasturtea bukatutakoan egingo zaio eskaera Udalari dagokion justifikazio txostenarekin, eta Udalak egoki ikusten badu, aurrekontuak eskatu ondoren, hurrengo urteko aurrekontuetan inbertsio partidan jasoko du.

Ohiko hornigai txikiak (atrilak, kableatua, kañak…) eta ohiko erabilerak dakartzan mantenuak: instrumentuen konponketak, instrumentuen afinazioa kontratuaren adjudikaziodunak kudeatuko eta ordainduko ditu.

Zarauzko Udalak erositako tresnak eta ekipamenduak beti Udalaren jabetzan geratuko dira. Eta ondorioz, erosketa horiek udal ondarearen inbentarioan txertatuko dira.

Kontratua amaitzean adjudikaziodunak inbentario eguneratua aurkeztuko du.

7.- UDALAREN BETEBEHARRAK

1.-Eraikina: Zarauzko Udalak adjudikaziodunaren esku utziko ditu Maria Inmaculada eraikinaren instalakuntzak, eta gainera, bere gain hartuko ditu jarduerak sortutako gastu arruntak: argindarra, garbiketa, igogailua, berogailuak.

Zarauzko Udalak, bestalde, bere gain hartuko ditu higiezinaren gastu hauek, arrazoi hauengatik sortutakoak:

- Berritze lanak: eraikina handitzea, hobetzea, modernizatzea, egokitzea, moldatzea edo indartzea.
- Konponketa lanak, ezustean edo istripuz higiezinean sortutako kalteak konpontzeko beharrezkoak. Egitura erresistenteari eragiten diotenean konponketa handi gisa sailkatuko dira, bestela, konponketa sinple gisa.
- Kontserbazio lanak, ohiko erabileragatik eraikinak jasandako kalteak konpontzekoak.

2.-Baliabide materialak: Zarauzko Udalak ez du bulego materialik, material informatikorik, ekiporik, inpresio lanetarako gailurik edota antzekorik jarriko adjudikaziodunaren esku. Kontratua bete behar duenak, zerbitzuak hala behar izanez gero, bere baliabide material propioak jarriko ditu.

Eta adjudikaziodunaren kontura izango dira, fotokopiagailua, papeleria eta beharrezko izan daitezkeen gainerakoak erostea.

3.- Bestelakoak: Zarauzko Udalak bere gain hartuko ditu, adjudikaziodunak antolatuko dituen jaialdi edo ekitaldien gastuak, azpiegitura, baliabide edo bestelako beharrezko gastuak, betiere, aurrez Zarauzko Udaleko Kultura Departamenduak ikusi eta ontzat eman baditu. Gastu horietan ez dira eskolako pertsonal gastuak sartuko.

8.- ADJUDIKAZIODUNAREN BETEBEHARRAK.-

8.1.-Teknikoak:

- Zarauzko musika taldeen oraina eta etorkizuna bermatzeko ahaleginak egin beharko ditu, ikasleak eta ikasgaiak taldeon beharretara bideratuz. Horretarako, klausulen hasieran agertzen diren ikasketak eta jarduerak eskaini beharko ditu gutxienez, arreta berezia jarriz ikasle gutxi izanik ere, beharrezkoak erabakitzen direnei.

- Adjudikaziodunak musikari eta musika-tresnei buruzko oinarrizko ikastaroak eskaini beharko ditu (Euskal Autonomia Erkidegoko musika-irakaskuntza ez-arautuko zentroen –Musika Eskolen– sorrerari eta funtzionamenduari buruzko oinarrizko arauak jasotzen dituen 1992ko urriaren 27ko 289/1992 Dekretuan zehazten dira gutxienez irakatsi beharreko musika-tresnak).

- Herrian lanean dabiltzan beste taldeekiko lankidetza eta elkarlana bultzatu behar du.. Eta taldeok Eskolarekin batera ekitaldiak antola ditzaten bultzatuz.

-Eskolak herriko kultura- eta jai-ekitaldietan parte hartu beharko du, ikasturtean zehar ikuskizunak eta jaialdiak eskainiz: Santa Zezilia eguna, Gabonak, ikasturte barneko entzunaldi eta jaialdiak edo ikasturte amaierako ekitaldietan, besteak beste.

- Aurreko puntuak gauzatzea ahalbidetuko du, horretarako Eskolako zuzendaritzaren barruan, eta Udalaren Kultura Departamenduak xede horrekin erabakitako foroetan parte hartuz.

- Horrez gainera, hitzarmenaren jarraipen-batzordean parte hartuko du erabakitzen diren aldikako bileretan. Udalak eta adjudikaziodunak zenbait bilera egin beharko dituzte dokumentu honetan adierazitako helburua ondo betetzen direla kontrolatzeko; informazioa emateko bilerak eta ebaluatzeko bilerak antolatu beharko dira, gutxienez ondorengoak izanik:

1) Ekainaren lehenengo hamabostaldian: Aurretiko izen-emateen emaitzak, izen-ematearen ondoren ikasgaien bideragarritasuna, irakasleen beharra, asteko ordutegien antolaketa, ikasturteko egutegiaren proposamena, material-erosketarako proposamena eta ikasleek ordaindu beharreko kuoten proposamen ez loteslea.
2) Irailaren azkeneko astean: Ikasturte hasieraren informazio orokorra eta intzidentziak.
3) Martxoaren aurreneko astean: Helburuen betetze-mailari buruzko informazioa.

- Ikasturte bakoitzaren amaieran (uztailean), ikasturtean egindako jarduerei eta ikasturte berriari buruzko memoria bat (datuak sexuaren arabera jasota) aurkeztu beharko dio Udalari, gutxienez euskaraz. Memoria horrek honako atal hauek izan beharko ditu, gutxienez: matrikulazioak, ebaluazioak, txosten ekonomikoa, txosten pedagogikoa, aurreikuspenak eta ekitaldien balorazioak eta aurreikuspenak.

- Eskolako irakasleek dagokien titulazioa izan beharko dute musikan edo dagokien espezializazio-arloan. Irakasleen etengabeko prestakuntzarako proiektuak bultzatuko dira.

-Irakasle eta langile guztien euskara-maila egokia dela bermatu beharko du adjudikaziodunak.

8.2-Administratiboak:

- Adjudikaziodunak kontratuaren arduradun bat izendatu behar du eta Udaleko Kultura Departamenduari jakinaraziko dio Eusko Jaurlaritzatik emandako irizpideen arabera urteko egutegia.

- Adjudikaziodunak zerbitzua egoki eskaintzen dela zaindu behar du.

-Zerbitzuarekin loturiko jarduerek hirugarrenei sortutako kalteak ordaindu beharko ditu, Administrazioari egotz dakizkiokeen arrazoiengatik sorturikoak salbu.

-Zerbitzuei atxikitako ondasunak ezingo dira bahitu.

-Adjudikaziodunak eskaintzen duen zerbitzuak honako baldintza hauek bete beharko ditu:

- Kontratua amaitzen denean, adjudikaziodunak ordura arte erabilitako lekua utzi beharko du, eta ez du luzapenetarako edo kalte-ordainak jasotzeko eskubiderik izango.

- Adjudikaziodunak izango du azpiegituren eta udal-lokaletan erabiltzen diren azpiegitura, material eta tresnen erabilera eta mantentze-lanen gaineko erantzukizuna, eta Udaleko Kultura Departamenduarekin koordinazioan arituko da.

8.3.-Ekonomikoak:

- TASA
Zarauzko Udalak onartuko ditu ikasleek ordaindu beharreko ikastaroetako matrikula eta ikasturteko zenbatekoak, adjudikaziodunak proposatutakoa entzun ondoren. Prezio hauek, Zarauzko Udalaren zerga-ordenantzetan onartu eta iragarriko dira.

Adjudikaziodunak bere baliabideak erabili beharko ditu Udalak onartutako prezio publikoen dirua eskuratzeko eta bildutakoa hilean behin emango dio Udalari eta honekin batera txosten bat aurkeztu beharko du diru-sarreren kopurua justifikatzen (matrikula, itzulketak, hileko kuota…). Udalak ez dio enpresa adjudikaziodunari fakturarik egin behar diru-sarrera horregatik.

Adjudikaziodunak Udalari hileko faktura baino lehen hilabete horretako jardunaren jarraipen txostena aurkeztu beharko dio eta Udalaren onarpena jaso ondoren faktura bidali. Txosten horretan jaso behar da hilabete horretako zerbitzuaren betetze maila lau arlo hauetan gutxienez:

1.- Pedagogikoa
2.- Ekonomikoa
3.- Azpiegitura/baliabideak
4.- Aparteko ekintza edo jarduerak: entzunaldiak, kontzertuak…
5.- Beste

- DIRULAGUNTZAK

Zarauzko Udalari dagokio Eusko Jaurlaritzatik musikaren irakaskuntza babesteko urtero egiten duen deialdia jaso ahal izateko beharrezkoa den tramitazioa betetzea; eskaera hori bete ahal izateko beharrezkoa den informazioa eta txostena Eskolako zuzendaritzak erraztu beharko dio Udalari.

IMANOL URBIETA MUSIKA ESKOLAKO EKIPAMENDUA. INBENTARIOA

	INSTRUMENTUA	KOPURUA
BIOLINA	Biolina 3/4	1
	Biolina 4/4	1
BIOLONTXELOA	Biolontxeloa 3/4	1
	Biolontxeloa handia	1
BOMBARDINOA	Bonbardinoa	1
	Thomann EP 1 Tenor Horn	1
GITARRA	Gitarra Admira handiak	3
	Gitarra Admira txikia	2
	Gitarra elektrikoak	2
	Bajo elektrikoa	1
KLARINETEA	Klarinetea Backun beta granadilla 17	1
PANDEROA	Panderoa	1
PERKUSIOA	Bongoa	1
	Konga	2
	Bonbo sinfonikoa+Platoak+Soportea	1
	Bonboak txarangetako	2
	Bateria "Pearl" (Aulkia+Soportea+Funda)	5
	Klabea	2
	Kabasa	1
	Zintzarria	1
	Agogo	1
	Pandereta	3
PIANOA	Piano Bertikala	4
	Piano Elektronikoa	1
	Piano Digitala	1
	Teklatua	3
	Pedalera - Soporte	1
SAXOFOIA	Saxo Alto Yamaha yas280	1
TRIKITIXA	Trikixa	1
TRONBOIA	Tronboia	2
TRONPA	Tronpa	1
TRONPETA	Tronpeta	4
TXISTUA	Txistua	2
	Silbotea	1
ZEHARKAKO FLAUTA	Zeharkako Flauta	1

BESTELAKOAK	KOPURUA
Euri makila	1
Guiroa	1
Kanpaiak	2 joku
Karriloia	6
Kaxa txinatarra	12
Klabe jokuak	4
Maraka	5
Metalofonoa Alto	1
Metalofono Soprano	1
Metalofonoa	6
Pandereta tubitoak	1
Panderoa	4
Sonajeroa	18
Triangeluak	13
Tubito luzeak	2
Tuboak	2 joku
Txintxinak	7 joku
Xilofonoa	5
Altaboza 6,5″	1
Afinadoreak	4
Anplifikadorea	1
Atril handiak	30
Atril Txikiak	59
Audio Zutabe Aktiboa	3
Bajo anplifikadorea	1
CD Erreproduktorea	4
Gitarra anplifikadorea	2
Gitarra funda	8
Gitarra hankak	2
Jack/mini – Jack kablea	1
Kaskoak	1

Kaskoen Kable adaptadorea	1
Kaskoen kable luzagailua	1
Lerro trinkoko nahasgailua	1
Mikrofonoa + hanka	3
Pantaila	1
Pantaila Digitala	2